

Garazi Rodil Jaime

A maila • **Aipamena**

Garazi Rodil Jaime Zumarragan jaio zen 2004ko irailaren 2an. Ordutik Ormaiztegin bizi da. Bere zaletasunei dagokienez, musika entzutea, irakurtzea eta gitarra jotzea ditu gogokoen. Gaur egun batxilergoa amaitzen ari da Beasaingo Txindoki institutuan. Etorkizunean psikologiako ikasketak egin nahi dituelarik.



AHAZTU BAINO LEHEN

Jendez inguraturik nago eta erdiak ez ditut ezagutzen; gainera, gerturatu eta hitz egiten hasten zaizkit ezagutuko banindute bezala, ez dut ulertzen. Egia da, aurpegi batzuk ezagunak egiten zaizkidala, nahiz eta guztiz ez ditudan identifikatzen. Neskato batek amona deitu nau eta ez dakit zergatik, ez dut uste horren zaharra naizenik. Azken urtebetetzean 47 bete nituen. Gaur, hemen bilduta gauden pertsona baten urtebetetzea da, baina ez dakit norena.

- Ama... -...
- Ama... -...
- Ama! Zatoz mahaira esertzera, mesedez.
- Bai, banoa.

Denak batera zorionak zuri hasi dira kantatzen, baina noren urtebetetzeak dira? Lexuri esan dute izena aipatzen den zatian eta lehen amona deitu didan neskatoak itzali ditu kandelak. Bere urteak dira. Lexurik ile marroixka argia dauka eta bi ile-mototsetan dauka bilduta. Soineko berde loredun bat darama eta stan smith klasikoak, nire garaikoak. Eyeliner moderno horietako bat darama eginda, ongi geratzen zaio. Oraindik ez dakit zergatik deitu didan amona 18 urte bete dituen neskato honek.

- Amona nahi duzu tarta zati bat?
- Zer? Barkatu.
- Ea nahi al duzun gazta tartaren zati bat.
- Labekoa da? Gazta tarta hori da onena eta.
- Bai, noski. Zuregatik aukeratu nuen.
- Zuk ni bai ezagutu, baina nik zu ez. Zergatik deitzen nauzu amona?
- Ba nire amona zarelako. Gainera kuttunena; ez zaude kexatzeko. - Eta barrezka hasi da.

PROSA

Milaka galdera dauzkat buruan bueltak ematen. Noiz izan du Jaionek alaba bat? Eta zergatik nik ez nekien? Denak mahaiaren inguruan daude bilduta, barrezka eta istorioak elkarri kontatzen. Ni mahaiaren iskina batean nago. Isilik. Bakarrik. Baztertua izango banintz bezala. Ingurua eta azken gertakizuna aztertu ondoren, nire familia dela ondorioztatu dut eta gehienak ezagunak egiten zaizkit jada.

Agurtzeko ordua iritsi da. Denei bi musu eman eta Lexuri, Jaione eta bere senarra, Luis, kotxean sartu gara, etxera bidean. Atzealdean gaude Lexuri eta ni. Berandu da eta Lexuri nekaturik dago, begiak itxi egiten zaizkio ohartu gabe. Konturatzeko nire magalean dago lo. Nahiz eta Lexuri ongi ez gogoratu, bere ondoan nagoenean etxeko goxotasuna eta lasaitasuna transmititzea lortzen du. Egia da medikuak esan zidala gogoratzeko prozesua zaila eta geldoa izango zela, baina ez dut gogoratzen zergatik esan zidan hori. Etxera iristean, Jaionek asteazkenean kontsulta dudala gogorarazi dit eta nirekin etorriko dela ere esan dit. Udako oporretan Jaione eta Lexuri nire etxera etortzen dira oporrak pasatzera, Luisek, lana duenez, etxera abiatu da kotxearekin eta hirurok etxean sartu gara.

Egunak argitu du eta sukalderantz abiatu naiz. Eskailerak jaitsi eta sukaldean Lexurirekin topo egin dut. Ez nuen uste egungo gazteek goiz esnatzeko ohitura izango zutenik. Harritu egin nau. Lexurik harritu egiten nau. Emakume indartsua dela iruditzen zait, ama bezala. Nire betiko kafesnea hartu dut. Lexuriren esentziak erakarri egiten nau eta oraindik ez dakit zergatik.

- Amona, gaur zer plan?
- Nola "zer plan"?
- Ba, ea gaur zer egitea pentsatu duzun.
- Egia esan ez dut gehiegi pentsatzen zer egin. Lehen aitonarekin irteera zoragarriak egiten nituen, baina orain ez dut gauza handirik egiteko.
- Bada egin itzazu nirekin. Ni prest nago; gainera, oporretan nagoenez, ez dut gauza hoberik egiteko.
- Zergatik esnatu zara hain goiz?
- Esnatu egin naiz eta ezin nuenez lorik egin jaiki egin naiz.
- Bale, hau da gaurko plana: erosketak egitera joango gara feriara eta ondoren etxeko lanak egingo ditugu. Astia badugu, hondartzara joango gara, baina aurretik bazkaria prestatzen hasiko gara.
- Ados, dutxatzea eta janzteak bakarrik falta zait.

Ez nuen uste gaurko egunean konpainia edukiko nuenik. Ez dago gaizki. Lexuriri erosi beharreko gauzen zerrenda egiteko eskatu diot, azkenaldian gauzak ahaztu egiten zaizkit eta. Herriko plazara gerturatu gara eta sekulako eguraldia egiten du gaur. Lexuriren laguntzarekin erosketak egin ditugu eta pultsera bat oparitu dit Lexurik. Biok berdina eduki dezagun eta elkar gogorarazteko, horrelako zerbait esan dit. Etxera iritsi eta bazkaria prestatzen hasi gara. Gaur entsalada eta patata tortilla bazkalduko dugu. Sukaldea txukun utzi ondoren hondartzara joateko prestatu gara.

PROSA

Zurriolara joan gara, etxetik gertuen dagoen hondartza delako. Jaione ere gurekin etorri da azkenean. Jaionek gogorarazi dit bihar medikuarengana joan behar dugula eta ez ahazteko. Egia esan, guztiz ahaztu nuen. Ez dut igeri egiten ikasi eta horregatik inoiz ez naiz ausartu itsasora sartzen. Ordu bat eta erdiak aldera etxerantz abiatu gara. Bazkaldu eta jaso ondoren egongelara joan gara. Albistegiak entzun eta eguraldira ere ez gara ailegatu lo hartu gabe. Esnatzean gizon bat dago ondoko sofán. Nor da? Lexuriren lagun bat da? Ez zaharregia da.

- Ama, zer moduz? - Galdetzen dio Jonek.

- ... - zergatik dago nire etxean? -

- Ama, ondo zaude? Badakizu nor den? - Jaionek.

- Ez, ez dut ezagutzen.

- Ama Jon da, zure seme gazteena. Gaur itzuli da oportetarik.

- ...

Egongelatik joan dira nire bi semeak. Dirudienez beste bat daukat. Egia da Jaionek esan ondoren ohartu naizela zein den, baina ez dut ezer esan. Ez dut nire familiakoek ero bat bezala ikusterik nahi. Jaionek eta Jonek begiratu nauten moduan begiratzea. Izututa. Triste. Beldurrez. Lexuri da bakarra pertsona "normal" bat bezala tratatzen nauena.

Gaur kontsulta daukat. Ez nago Jaione bezain urduri. Jon etxean geratu da eta neska- laguna duela esan zidan bart gauean. Marlene deitzen da eta argazkian emakume polita dela dirudi. Igandean ezagutuko dudala esan zidan. Dirudienez, bazkariak egiteko ohitura hartu dugu. Prestatu gara eta irten baino lehen Lexurik besarkatu nau. Triste dagoela sumatzen dut. Gaur denak arraro daude. Kontsultara iritsi garenean, azkar esan dute nire izena. Medikuak ohiko galderak egin dizkit eta erresonantzia bat egin didate. Gutxi gogoratzen dut, baina medikuak ez digu gauza onik esan. Jaioneri urduritasuna joan zaio eta triste jarri da.

Desorientatuta nago. Ez dut ulertzen zergatik etxera iristean denek besarkatu nauten. Ez da sarritan egiten dugun zerbait. Jaione negar batean joan da bere logelara. Ni aitonaren zain nago, ogia eroatera joan baita. Ez da itzultzen eta berandu da.

- Lexuri, non dago aitona?

- Ez dut ulertzen. Nola non dagoen?

- Ogia eroatera joan da eta ez da itzultzen. Ez dakit non dagoen eta zuk?

- Amona, aitona duela hiru urte joan zitzaigun.

- Nola joan?

- Zerura, amona, zerura.

Zerbait ez dabil ongi. Bai, egia da, gogoratzen dut Bixenteren hileta eta ez dakit zergatik ahaztu dudán. Bazkaldu egin dugu denok batera. Lexurik igandea iristeko gogoá dudán galdetu dit. Egia esan ez dit ilusio handirik egiten Marlene ezagutzeak. Gero galdetu dit ea nire urteak ospatzeko gogoá dudán. Nola nire urteak? Igandean da nire urtebetetzea? Guztiz ahaztuta nuen. Ospatu egin beharko dugu.

PROSA

Astelehena da, Lexurik Jaioneri gaur parrandan irtengo dela jakinarazi dio. Jaioneri ez dio grazia handirik egiten, baina nik ongi pasatzeko esan diot. Azken finean, gaztea da. Nire gaixotasunak bilakaera azkarra izan duela esan digu medikuak, gaur izan dugu kontsulta. Lexuri prestatu eta lagunekin joan da. Jaionek oheratzen lagundu dit. Azkenaldian, gero eta gauza gutxiago egin ditzaket nik bakarrik.

- Ama, dena hor apuntatu dizut, ahazten bazaizu ere. Zalantzarik izanez gero, galdetu Lexuriri, hemen geratuko dela esan du eta Jon ere laguntzeko prest egongo da. Ados?

- Baietz. Joan zaitez lasai enkarguak egitera. Astebetez bakarrik zoaz eta.

- Egunero deituko dizut. Agur.

- Aio.

Kalera irteteko ohitura galdu dut jada, dena Lexurik edo Jaionek egiten dutenez. Etxera, tarteka, gizon bat sartzen da. Ezagun bat dela uste dut, baina ez dakit oso ongi nor den. Arratsaldeko lauak dira eta kafesne bat nahiko nuke. Sukalderantz abiatu naiz. Kostatu egin zait sukaldea aurkitzea. Pare bat postit daude hozkailuan, ez dakit nork idatzi dituen. Irakurtzen hasi naiz eta bihar kontsulta dudala jartzen du, goizeko hamarretan. Ez dakit zertara etorri naizen sukaldera eta egongelara joan naiz.

Kontsulta bidean gaude Jon eta ni. Gaur erresonantzia bat egin naute eta emaitzak espero zirenak izan direla esan du medikuak. Ingresatu egin behar didate. Egunero hiru pertsona etortzen dira bisitan eta bat Lexuri da, asko pozten nau, besteak ez ditut ezagutzen. Pilula ugari irantsi behar ditut egunean zehar, kontua galdu dut jada. Lexurik, batzuetan, bi aldiz egiten dit bisita eta eguna motzagoa bihurtzen du. Nik uste erizaina berria dela. Eta beste pilula bat.

Ez dakit gaur zein egun den. Hainbat proba egin dizkidate medikuek eta arratsaldean familia guztia etorri behar dela esan didate. Zergatik etorri behar dira denak batera? Banan-banan etor litezke eta horrela gelan lasaiago egongo ginateke, nire ustez. Jendea malkotan sartu da eta besarkatu egin naute. Lexuri ez dago gelan. Jaione negarrez ari da Luisen alboan. Oso galduta nago. Denak joan dira. Jaionek laster medikua etorriko dela esan dit eta egoera azalduko didala.

Medikuak alzheimerrak okerrera egin duela esan dit eta horregatik nagoela ingresatuta. Gainera gero eta neurona gutxiago ditudala esan dit eta horrek nire gaitasunak mugatuko dituela ere bai. Ez dakit nola erreakzionatu. Ez dakit zer galdetu.

- Ongi zaude?

- Bai, bai, lasai. Baina neurona gehiago galduko banitu, zer gertatuko litzateke?

- Zure egoera oso txarra denez, hori gertatzeko probabilitatea handia da.

- Baina zer gertatuko litzateke?

- Horren ondorioz, zure bizi itxaropena murriztu egin da. Ez zaizkizu egun asko geratzen. Sentitzen dut.

PROSA

Lexuri sartu da gelan eta izututa dagoela dirudi. Ez du ezer esaten. Zurtuta nago eta ez dakit zer esan. Nik uste dut zerbait esan nahi didala, baina ez du hitzik ere esan. Nire ondoan eseri da. Malkoak xukatu ditu.

- Amona, sentitzen dut lehen etorri ez izana.

- Lasai. Non zeuden?

- Paseatzera joan naiz, zer esango dizudan pentsatzeko.

- Eta lortu al duzu?

- Baietz uste dut. Ez dut uste gogoratuko zarenik, baina txikia nintzenean pultsera bat oparitu zenidan eta zuk ere berdina zenuen. Kentzea saihestu nuen ahal nuen guztietan, baina egun batean hautsi egin zitzaidan. Izugarrizko negarraldia egin nuen eta, egia esan, ez nuen ulertzen.

(negarrez hasten dira)

- Geroago ohartu nintzen. Pultsera horrek modu batera edo bestera gure harremana eta elkarri diogun maitasuna adierazten zuen niretzat. Horregatik, puskatu egin zenean, hori guztia hautsi zela ere pentsatu nuen, galdu egingo zintudala pentsatu nuen eta oso triste jarri nintzen. Horregatik oparitu nizun, eskumuturrekoaren amaieraren moduan gure harremanarena ere gertuegi ikusten nuelako. Gure harremana eta maitasuna ez galtzeko, ez apurtzeko helburuarekin oparitu nizun berria. Askok maite zaitut, amona, eta inoiz ez zaitut ahaztuko.

Besarkada luze baten ondoren, berriketan aritu ginen une luze batez. Bere parrandetako istorioak kontatu zizkidan eta barrezka ere egon ginen. Ezin izan dut burutik kendu hau ez dudala gehiago biziko, azkena izan daitekeela. Berandu egin da eta Lexuri etxera joan behar da. Oso triste nago. Istorio guztien amaiera iristen den moduan nirea ere iritsi dela uste dut.

- Ahaztu baino lehen, Lexuri, nik ere asko maite zaitut.

Goian bego, 2021-08-10